



KUTXA Enplegatuen Elkarteak	Xendazaletasun atala
106. zka. 5 euskal hiribururen 17. Zeharkaldi Handia	Orozko-Areta / 2014-06/7-8

Adiskide xendazaleok:

Joan zen maiatzaren 10ean Murua eta Orozko artean, eguraldi ezin hobearekin eta luzaroan ahaztuko ez dugun gozamenarekin egindako etapa handiaren ondoren, oraingoan ibilaldi apalagoa izango dugu, distantzia nahiz ordutegi eta metatuen aldetik. Beraz, ez dugu goiz jaiki beharrik izango aurrekoan bezala eta, egindako ahaleginaren ondoren, ohi bezala, jatetxe batean indarberrituko gara.

Orozko beti ibili izan da bere gisara. Sei mende luzez ez zen egon bete-betea Bizkaian sartuta ere, 1180 eta 1785 artean Aiarako jaun ahaltsuen esku egon zen, gorabehera batzuekin hika-mika dinastikoak medio, eta lurraldearen eta bertako biztanleen gain zituzten eskubide bereziei eutsi zieten.

Lurralterako sarbidea kontrolaturik zegoen dorre, ordainpeko zubi eta kateen bidez (historiaren ironiak, gaur egun AP-68 autopistako ordainlekua dagoen leku berean zeuden orduan kateak). Bideak menderatzea, gai estrategikoa izateaz gain, irabazi handiak ematen zituen negozioa zen, eta horrek liskarrak eta hilketak eragiten zituen. XIII. eta XIV. mendeetan, Euskal Herria odolustu zuten bandoen arteko borroketan, Ribas (oñaztarrek) eta Anuntzibai (ganboatarrak) aitoren familiek gogotsu hil zuten elkar, besteak beste, pasabidea kontrolatzeko.

Laudio (Araba) eta Orozko (Bizkaia) arteko mugan, bada leku bat Katea gisa ezaguna, eta Ribastarren leinuak han garraioari tasak kobratzeko jarritako katea oroitarazten duena. Hain zuzen ere, igaroko gara leku hartatik.

Hasieran Meatza eta Sagarminaga auzoetara joko dugu, eta gorago Arrolako Santa Marina basilizaren jolas-gunera iritsiko gara; jarraian Jesuri-ren gailurrera: han mendizaleen postontzi bat dago, Endesa taldearena, eta beste bat Indautxuko Club Baskonia Mendi Taldeak jarria 1967-5-17an.

Handik mendi-lepora jaitsi eta eguneko bigarren gailurra egingo dugu, Elorritxugana edo Kukutzakoatza (721m), balkoi ederra Bizkaiko tontor nagusiak begietsi eta miresteko. Gero, Pagazandu auzora iritsiko gara, eta Aizetza-ra jaisten jarraituko dugu. Eta handik pixka batera "Katea Auzotik" igaroko gara, baita Anuntzibai jauregitik hurbil eta Santa Ana elizarino, bukaeratik oso hurbil.

Xendazaleok, animo, natura zain dugu-eta!!!

Ibilbidea: Orozko-Areta

Beharrezko denbora										4,20	
Goranzko desnibel metatua										645 metro	
Beheranzko desnibel metatua										680 metro	
Zeharretara egin beharreko distantzia										15.250 metro	
	Inguru nea	1		Orientazioa	2		Joan-etorria	1		Esfortzua	3

Irteera-lekua	Autobusen geltokia/Amara Plaza hotela
Aurkezteko ordua	07:40
Irteera-ordua	07:45
Bazkaria	Karrika jatetxea
Prezioa	22 euro

Izena emateko azken eguna: 2014-06-5eko 12etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzailearik, irteera bertan behera geratuko da.
B/Eguraldiaren iragarpena larunbaterako txarra baldin bada, igandean egingo da ibilaldia.

Izen-emateak posta-helbide hauetan egin behar dira:
alahuerta@kutxabank.es/jlurretabizkaia@kutxabank.es edo telefono hauetan: 943-00.14.69 (Alberto Lahuerta-Baterakuntza eta Kostuak-969)/943-00.12.36 (Lorenzo Urretabizkaia-Gipuzkoa Sarea-5700)..

